Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko ekainaren 24a, osteguna — 118 — Jueves, a 24 de junio de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## HONDARRIBIKO UDALA

*Gizarte Zerbitzuetan beren jarduera garatzen duten entitate eta elkarteen proiektuei dirulaguntzak emateko deialdia. 2021. BDNS (Identif.): 569971.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/569971).

Gizarte Zerbitzuetan beren jarduera garatzen duten entitate eta elkarteen proiektuei dirulaguntza publikoen deialdia onartzen duen 2021eko ekainaren 11ko, Hondarribiko Udaleko Alkatetzaren 1843 zenbakiko Dekretuaren laburpena.

*Lehengo. Onuradunak.*

Beren ekintzak Hondarribian eta Eskualdean garatzen dituzten irabazizko helbururik gabeko elkarte eta entitateek. Lurralde mailakoek ere, baldin eta udal esparrua gainditzen badute edota Hondarribiko udalerriko pertsonak artatzen badituzte.

*Bigarren. Xedea.*

2020. eta 2021. urteetan Gizarte Zerbitzuetan beren jarduera garatzen duten entitate eta elkarteen proiektuei lehia erregimenez dirulaguntzak emateko deialdia zabaltzea.

*Hirugarren. Oinarri arautzaileak.*

Hondarribiko Udalaren Dirulaguntzak Arautzen dituen Udal Ordenantza eta bere IV. eranskina, Gizarte Zerbitzuetan beren jarduera garatzen duten entitate eta elkarteen proiektuei dirulaguntzak ematea arautzen duena, 2020ko uztailaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua (143 zenbakia).

*Laugarren. Zenbatekoa.*

Dirulaguntza honetarako baimendutako gastua 30.000 eurokoa da.

Aurrekontu aplikazioa: 1 0208.481.01.230.00.2021.

*Bosgarren. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.*

Eskabideak aurkezteko epea, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen den biharamunetik hasi eta hilabetekoa izango da.

Dirulaguntza eskaerak eta dagozkion dokumentazioa elektronikoki aurkeztuko dira, Hondarribiko Udalaren webguneko Sarrera Erregistroaren bidez (http://www.hondarribia.eus/eu/tramiteak-laguntzak-diru-laguntzak). Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira.

Hondarribia, 2021eko ekainaren 11.—Txomin Sagarzazu Ancisar, alkatea. (4214)

## AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Convocatoria de subvenciones a proyectos de entidades o asociaciones que desarrollen su actividad en el Sistema de Servicios Sociales. 2021. BDNS (Identif.): 569971.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/569971).

Extracto del Decreto n.º 1843, de 11 de junio de 2021, de la Alcaldía del Ayuntamiento de Hondarribia, por el que se aprueba la convocatoria para la concesión de subvenciones públicas a proyectos de Entidades o Asociaciones que desarrollen su actividad en el sistema de Servicios Sociales.

*Primero. Beneficiarios.*

Asociaciones o Entidades sin ánimo de lucro, que centren sus actividades en Hondarribia y la Comarca. También las de ámbito territorial, cuando sus actividades superen el ámbito municipal y/o atiendan personas del municipio de Hondarribia.

*Segundo. Objeto.*

Convocatoria en régimen de concurrencia competitiva de las subvenciones a proyectos de Entidades o Asociaciones que desarrollan su actividad en el sistema de los Servicios Sociales, realizadas o por realizar durante los años 2020 y 2021.

*Tercero. Bases reguladoras.*

Ordenanza Municipal de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Hondarribia y su anexo IV, correspondiente a las Bases reguladoras de la concesión de subvenciones a proyectos de Entidades o Asociaciones que desarrollan su actividad en el sistema de los Servicios Sociales, publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, número 143, de 29 de julio de 2020.

*Cuarto. Cuantía.*

El gasto autorizado para esta subvención es de 30.000 euros.

Aplicación presupuestaria: 1 0208.481.01.230.00.2021.

*Quinto. Plazo y forma de presentación de las solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, contado a partir del día siguiente a la publicación del anuncio de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Las solicitudes de subvención y la documentación correspondiente se presentarán electrónicamente, a través del Registro de Entrada de la página web del Ayuntamiento de Hondarribia, (http://www.hondarribia.eus/es/tramites-ayudas-subvenciones). También podrán presentarse por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 16 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Hondarribia, a 11 de junio de 2021.—El alcalde, Txomin Sagarzazu Ancisar. (4214)

EK\CV GAO-I-2021-04214